

“ARGI DUGU ELKARLANA BEHARREZKO DELA EGOERA HONI AURRE EGITEKO, HORREGATIK PROPOSATU GENUEN UDALAK HARTU BEHARREKO NEURRIAK LANTZEKO MAHAI BAT SORTZEA”

- **Oñatiko EH Bilduk elkarlanerako mahaian adostutakoaren harira zabaldutakoaren inguruan minduta azaldu da Galdos “Ez da hika-mikatan ibiltzeko momentua, elkartasunerako momentua baizik. Denak ez du balio lehia politikoan”.**
- **Jeltzaleek esperantzarako datuak ere ikusten dituzte, ez bakarrik osasun egoera egonkortzen ari delako, baita ekimen solidarioak eta gizartearen erantzuna esperantza iturri direlako, “distantzia lutzeko lasterketa batean gaude , baina guztiok bat eginik inor atzean utzi gabe egoerari aurre egitea lortuko dugu”**

Covid 19ak arriskuan jarri du gure osasuna eta gizarteak erantzun bikaina eman du arrisku hori mugatzeko jarri diren neurriak errespetatuz eta auzolanean aritzu. “Konfinamendu neurriek gure bizimodu zaildu badute ere, guztion artean egiten ari garen esfortzua fruituak ematen ari da eta horrek erakusten digu elkarlana eta batasuna direla gaitz honi aurre egiteko bidea” adierazi du Ainhoa Galdos EAJ udal taldearen bozeramaileak. Jeltzaleek azaldu dute, osasuna babesteko neurrikin jarraitzea beharrezkoa izango dela eta lehentasuna guztion osasuna babestea izango dela baita aurrerantzean ere, baina osasun krisi honek ondorio ekonomiko garrantzitsuak ere ekarri dituela eta horiei aurre egitea eta inor atzean ez uztea ere ezinbestekoa izango dela. EAJk azaldu du argi izan duela hasieratik elkarlana beharrezkoa dela egoera honi aurre egiteko eta horregatik proposatu zutela udalak hartu beharreko neurriak lantzeko mahaia sortzea. “Erakundeetan erantzukizuna dugun pertsona eta alderdiok eredugarriak izan behar dugu elkarlan horretan, ez da hika-mikatan ibiltzeko momentua, guztiok bat eginik arazoei irtenbideak bilatzeko baizik eta hortxe jarri ditugu gure indar guztiak” dio Galdosek. Galdos minduta azaldu da Oñatiko EH Bilduren jarrerarekin, izan ere, elkarlanean adostutako neurriak udal gobernuaren erabaki bezala aurkeztu nahi izan ditu EH Bilduk, bide batez, Eusko Jaurlaritzaren aurka jota, eta horri erabateko leialtasun eza irizten dio Galdosek “Elkarlana beharrezkoa den garai hauetan horrelako jarrerak ez dira onargarriak. Bi alderdiak gauden mahaiaik, guk proposatuta sortutako mahaiaik, landu eta adostu ditu erabakiak. Udalak sortu du beraz diru poltsa, ez udal gobernuak bakarrik. Erakunde bakoitzak bere esku dagoena egin beharko du. Ez da hika-mikatan ibiltzeko momentua, elkartasunerako momentua baizik. Denak ez du balio lehia politikoan” adierazi dute jeltzaleek.

Udalean martxan jarritako mahaia horretan, esan bezala, adostu dituzte bi alderdiek lehenengo neurriak, erosketa bonuak, ohiko gastuei aurre egiteko dirulaguntzak... “Gizarte zerbitzuetatik egoera zaurgarrian dauden pertsonei egin behar diegu arreta, baina tokiko ekonomia ehuna mantentzeko neurriak ere beharrezkoak dira Oñati bizirik mantentzeko eta lanpostuen galera ekiditeko”. Merkataritza eta ostalaritza egoera zailean daude, kasu askotan jarduera erabat etenda, baina baita profesional eta autonomoak ere, iturginak, igeltseroak... eta guztiak beharko dute neurri batean edo bestean udalaren laguntza jeltzaleen ustez. “Gizarte zerbitzuetara beste 35.000 euro bideratu ahal izango dira Eusko Jaurlaritzak Larrialdiko dirulaguntzetarako emandako diruari esker, izan ere, Caritasek iragarri berri duen moduan orain arte laguntzarik behar ez zuten familia askoren egoera ere aldatu du krisi honek eta pertsona gehiago daude laguntza eskatzeko egoeran” azaldu dute.

Jeltzaleek esperantzarako datuak ere ikusten dituzte, ez bakarrik osasun egoera egonkortzen ari delako, baita ekimen solidarioak eta gizartearen erantzuna esperantza iturri direlako ere. “Oñatiko Magnet enpresak irabazi asmorik gabe martxan jarritako Kuttuna bonoen ekimena arrakastatsua izaten ari da, dagoeneko 60.000 eurotik gorako salmenta egin da eta herritarrek erakutsitako solidaritate horrek likidezia emango die itxita dauden establezimenduei” azaldu du Galdosek. Jeltzaleek uste dute gizartearen solidaritate hori ere ikusiko dela Caritasek dirua biltzeko egin duen deialdian ere, “krisi honetatik irakasgai ugari atera beharko ditugu, baina gizarte bezala ere indartuta aterako garela uste

dugu, pertsona eta kolektibo asko eta askoren jarrera eredugarria izaten ari delako”. “Epe motz eta ertainera neurriak lantzen ari gara, baina epe luzera ere izango dugu zer egina, krisi honek utziko duen arrastoa luzea izango baita. Distantzia luzeko lasterketa batean gaude , baina guztiok bat eginik inor atzean utzi gabe egoerari aurre egitea lortuko dugu” amaitu du Galdosek.

"TENEMOS CLARO QUE LA COLABORACIÓN ES NECESARIA PARA HACER FRENTE A ESTA SITUACIÓN, POR ESO PROPUSSIMOS CREAR UNA MESA PARA TRABAJAR LAS MEDIDAS A TOMAR POR EL AYUNTAMIENTO"

- **Galdos se ha mostrado molesta por las declaraciones de EH Bildu sobre la decisión consensuada en la mesa de trabajo y ha asegurado que "no es momento de peleas, es momento de trabajar unidos. No todo vale en la pugna política".**
- **Los jeltzales también ven datos para la esperanza, no sólo porque la situación sanitaria se está estabilizando, sino porque las iniciativas solidarias y la respuesta social son una fuente de esperanza, "esta es una carrera de fondo, pero unidos conseguiremos hacer frente a la situación sin dejar a nadie atrás"**

El Covid 19 ha puesto en peligro nuestra salud y la sociedad ha dado una excelente respuesta respetando las medidas que se han puesto para limitar ese riesgo y trabajando en común. "A pesar de que las medidas de confinamiento han dificultado nuestra vida, el esfuerzo que estamos haciendo entre todos está dando sus frutos y eso nos demuestra que la colaboración y la unidad son el camino para hacer frente a esta pandemia", ha dicho la portavoz del grupo municipal del PNV, Ainhoa Galdos. Los jeltzales han explicado que las medidas de protección de la salud deben seguir siendo necesarias y que la prioridad seguirá siendo la protección de la salud de todos, pero que esta crisis sanitaria también ha traído consecuencias económicas importantes, y que será necesario hacer frente a ellas y no dejar a nadie atrás. El PNV ha explicado que desde el principio ha tenido claro que la colaboración es necesaria para hacer frente a esta situación y por eso propusieron la creación de una mesa para trabajar en conjunto las medidas a adoptar por el Ayuntamiento. "Las personas y los partidos que tenemos responsabilidad institucional tenemos que ser ejemplares en esa colaboración, no es momento de peleas, sino de buscar soluciones entre todos a los problemas y es ahí donde hemos puesto todas nuestras fuerzas". Galdos se ha mostrado molesta con la actitud de EH Bildu de Oñati, que ha querido presentar las medidas consensuadas en colaboración como una decisión del gobierno municipal, al tiempo que ha arremetido contra el Gobierno Vasco, lo que ha calificado de "deslealtad absoluta en estos tiempos en los que la colaboración es necesaria". "Las medidas han sido trabajadas y consensuadas por la mesa en la que estamos los dos grupos municipales, una mesa creada a propuesta nuestra, por tanto, ha sido el ayuntamiento quien ha tomado dichas decisiones, no sólo el gobierno municipal. Cada institución deberá hacer lo que esté en su mano. No es momento de peleas, es momento de trabajar unidos. No todo vale en la pugna política".

Los partidos ya han acordado las primeras medidas, bonos de compra, subvenciones para hacer frente a los gastos corrientes... El comercio y la hostelería se encuentran en una situación complicada, en muchos casos con un cese total de la actividad, pero también profesionales y autónomos, fontaneros, albañiles y todos necesitarán en alguna medida la ayuda del ayuntamiento. "Se podrán destinar otros 35.000 euros a los servicios sociales gracias a las ayudas de emergencia concedidas por el Gobierno Vasco, ya que, como acaba de anunciar Cáritas, esta crisis también ha cambiado la situación de muchas familias que hasta ahora no necesitaban ayuda y hay más personas en situación de solicitarla", han explicado.

Los jeltzales también ven datos para la esperanza, no sólo porque la situación sanitaria se está estabilizando, sino también porque las iniciativas solidarias y la respuesta social son una fuente de esperanza. "La iniciativa de bonos Kuttuna, puesta en marcha sin ánimo de lucro por la empresa Magnet de Oñati, está siendo un éxito, ya se han vendido más de 60.000 euros y esa solidaridad ciudadana dará liquidez a los establecimientos cerrados" ha explicado Galdos. Los jeltzales creen que esa solidaridad de la sociedad también se verá en el llamamiento que ha realizado Cáritas para recaudar fondos, "de esta crisis tendremos que sacar muchas lecciones, pero como sociedad también vamos a salir reforzados porque la

actitud de muchas personas y colectivos está siendo ejemplar". "Estamos trabajando en medidas a corto y medio plazo, pero también habrá que tomar medidas a largo plazo, porque la secuela que va a dejar esta crisis va a ser larga. Esta es una carrera de fondo, pero todos juntos vamos a hacer frente a la situación sin dejar a nadie atrás" ha concluido Galdos.